




Julen Kaltzada

Editorea: Edorta Jimenez

UMEZURTZEN ABERRIA



San Isidro, 35-1A
31300 Tafalla Nafarroa
Tfno. 948 703 934
txalaparta@txalaparta.com
www.txalaparta.eus

AUTOBIOGRAFIA

242 or. | 13,5 x 21,5 cm. | PAPER-AZALEZ

Salneurria 17,00 €

ISBN 978-84-17065-16-4

Euskal Herria umezurtzen aberria da. Gerra garaian edo ostean jaiotako euskal herritar askok ez zuten aita edo ama ezagutu: Francoren aldekoek gure herriko kanposatuetako hormen aurrean edota bide bazterretan milaka eta milaka herritar hil zituzten. Horrela hil zuten Julen Kaltzadaren aita, Derion. Baina, horrez gain, hainbat belaunaldi zurtz jaio ziren etxean norbait faltan izateaz gain aberririk gabe jaio zirelako. Askok bizitzan aurrera joan ahala deskubritu zuten zergatik senideak faltan zituzten, zergatik haien askazia ia guztiz desagertuta zegoen. Antropologia la-

na izan zitekeen autobiografia honetan Julenek, umore lehor batez, desagertutako ohiturez eta paisaiez hitz egiten digu eta kontzientziaren itzartze pertsonal eta kolektibo horren kronika bizia egiten digu: gerraosteko Urdaibaiko bere ibilerak; apaiztegiatako giroa; Gogor apaiz-taldearen borrokak; Burgosko prozesuaren pasarte ezezagunak; Zamoran kartzelatutakoen askatasun-grina; herri honen berreuskalduntzearen lehen urratsak; Eginen sorrera zein itxiera... Xabier Amurizak eta Martin Orbek dioten bezala: «Liburu honetan, pertsona eta pertsonaia oso “aparteko” bat aurkituko duzue. Baita gure historia “borrokalariko” aro luze baten lekukotza zuzeneko bat ere».



Julen Kaltzada Ugalde Abadetu eta beste hainbat apaizekin Euskal Herriak jasaten zuen egoera salatzeko ekintza ugari egin ostean, atxilotua eta kartzelatua izan zen. 1970. urtean, Burgosko Prozesuan epaitu zuten beste hamabost lagunekin batera ETArri laguntza eman izanaren akusaziopean. Zamorako apaiz-kartzelan eman zuen denbora gehien, handik Valentzia ondoko Gilet herrira eraman zuten eta han askatasuna erdietsi zuen 1977ko amnistiaren bidez. Herri-mugimenduan lan ugari egindakoa, nabarmentzekoak dira Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundearen egindako lanak eta izandako ardurak. Herriak eta gizonak saiakera idatzi zuen 1979. urtean eta hainbat liburu euskaratu ditu.